# EUSKAL HERRIKO ETA MUNDUKO 25 URTEKO KRONOLOGIA (1873-1897)

XIX. mendearen azkeneko 25 urteak, hau da, Teresa Lisieux-koa karmeldar santa gaztea lurrean bizi zenekoa (1873-1897), gertaera sozial eta erlijioso, politiko eta militar garrantzitsuz hornituak daude...

Europan izan ziren iraultza larri, jazarpenak Elizari, desamortizazioak eta Elizari egindako lapurketak... gertatu ondoren, erlijio katolikoak gizatasun eta santutasun, adimen eta adorezko... fruitu harrigarriak eman zituen, berritze izpiritual ederra lortuz. Bidasoaz hemendiko eta handiko batzuk soilik aipatzeko, hona hemen: Michel Garikoits santua (1797-1863), Balentin Berrio-Otxoa santua (1827-1867), Louis Edouard Cestac (1801-1868), Esteban Adoain (1808-1880), Santa Vicenta Maria Lopez eta Vicuña (1847-1890), Charles Lavigerie (1825-1892), Rafaela Ibarra Aranbarri doatsua (1843-1900), Maria Antonia Bandres Elosegi doatsua (1898-1919), Maria Bihotz Sakratuarena (1842-1912), Candida Maria Jesusena dohatsua (1845-1912), Ramon Zubieta (1864-1921), M. Angeles Sorazu (1873-1921), Frantzisko Garate dohatsua (1851-1929), Margarita Mª Lopez de Maturana (1884-1934) Joan Bizente Jesus Mariarena Zengotita-Bengoa (1862-1943), etab.

Eta pertsona hauek sortutako mugimendu izpiritualak Teresa Lisieux-koaren garaian kokatu behar dira, XIX. mendearen bigarren erdiko gertaera sozio-politikoen artean. Inperialismo berri batek (britaniarrak, frantziarrak, alemaniarrak, espainiarrak...) Afrikan jarriak ditu batez ere begiak... Europan iraultza sozial eta politikoek gogor astintzen dute gizartea... komunikabide ezberdinetan egiten den aurrerapena handia da, zientziek bultzada indartsua jasotzen dute... Asmapen teknikoek denboraren joana lasterragotu egiten dute... Mundu eta ingurumari horretan du Teresa Lisieux-koak Normandiako herrialdean Jainkoaren Maitasunaren esperientzia.

Kronologia hau egiteko, jarraiko liburuok erabili ditugu: Kurt M. JUNG, *Weltgeschichte in einem Griff*, Berlin 1979, 1288 orr.; *Crónica de la humanidad*, Bartzelona 1987, 1184 orr.; *Crónica de España*, Bartzelona 1988, 2. liburukia; Gertraude WILHELM, *Hermes Hand Lexikon. Syncrhonopse der* Weltliteratur, Düsseldorf 1983, 288 orr.; *L'Histoire et ses méthodes (Encyclopedie de la Pléiade)*, Bruges 1961, 1774 orr.; Georges BUBY [Zuz.], *Histoire de la France. Les temps nouveaux de 1852 à nos jours*, Paris 1994, 687 orr.; O de la BROSSE - M.HENRY - Ph. ROUILLARD [Zuz.], *Diccionario del cristianismo*, Bartzelona 1986, 1103 orr.; Miguel ARTOLA [Zuz.], *Enciclopedia de Historia de España, VI, Cronología, Mapas, Estadísticas*, Madril 11993, 1241 orr. Horiekin batera aztertu ditugu Euskal Herriari buruz diharduten beste liburu batzuk ere.

*J. Urkiza - A. Lobera*

| | Teresa | Historia:<br>gizartea eta politika Europa eta munduan |
|---|---|---|
| 1873 | 23:30. Marie-Françoise-Thérèseren jaiotza Alençon herrian (I–2).<br>Bataioa Andre Maria elizan (I–4).<br><br>Lehenengo irria beraren amari (I–14).<br>Teresa "oso gaixo" dago (III–1).<br>Rosalia Taillé inudeak salbatu zuen (III–11). | Puerto Ricoko uhartean joputza abolitu egin zen (III–20).<br>Vienako Burtsaren crackak munduan krisi ekonomikoa sortarazi zuen; krisiak 1896ra arte iraun zuen (V).<br>Alderdi erregezaleen koalizioak Thiers uzkaili zuen Frantzian (V–24): Mac-Mahon egin zuten Errepublikako lehendakari (IX–16).<br>Hiru enperadoreek elkar ikusi zuten (X–22): Alemania, Austria-Hungaria eta Errusiaren arteko itunbena, bakeari eusteko.<br>Karlos Borboikoa, Karlos VII izena hartuz, errege koroatu zuten, eta bere erresumako hiriburua Lizarran jarri zuen (XII–25).<br>Txile eta Argentinaren arteko itunbena bien arteko muga Andeetan jartzeko.<br>Amadeo Saboiak abdikatu zuen eta I. Errepublika aldarrikatu zen Espainian, lehendakaria E. Figueras zelarik (II–11).<br> |
| 1874 | Bakarrik dabil… ume goxo eta maitagarria da (I–8).<br>Amak dioenez, Teresak buruargia ematen du… ederra izango da (VI–1).<br>Apurka-apurka ekiten dio guztia esaten (VI–24).<br>Haginetako mina astebetez (VIII–9).<br>"Bere otoitzak aingeru antzo egiten ditu… Kanta laburrak abesten ditu" (XI–8).<br> | Pavía jeneralak estatu-kolpea jo zuen Espainian (I–3).<br>Karlistek Bilboko setioa altxatu zuten (V–2).<br>*Frantzian lege batek debekatu zuen industrian hamabi* urtekoak baino gazteagoek lan egitea (V–19).<br>Ingalaterran, 10 ordura ekarri zen lansaioa lantegietan, eta bederatzi urtekoak baino gazteagoak ziren umeek lan egitea debekatu zen (VIII–30).<br>Errusian derrigorrezko soldadutza ezarri zen.<br>Iradier euskal itsasgizonak Gineara egin zuen lehenengo bidaiari ekin zion.<br>Martínez Campos jenerala monarkia ezartzearen alde azaldu zen, eta Alfontso XII Borboikoa jarri. |

| **Eliza**<br>**Euskal Herri eta munduan** | **Artea** | **Kultura** |
|---|---|---|
| Aita Santuaren *Quartus supra vigesimum* agiria, armeniarren zismaren inguruan (I–6).<br>Alemanian apaizgaitegi txikiak kendu egin ziren.<br>Austrian unibertsitateak sekulartu ziren.<br>Aita Santuaren *Etsi multa luctuosa* agiria, Italian, Suitzan eta Alemanian Elizari jazartzearen gainean (XI–21).<br>Frantziar diputatu batzuk Paray-le-Monialera joan ziren erromes, Frantzia Bihotz Sakratuaren babespean sagaratzeko. |  | Arthur Rimbaud: *Une saison en enfer.*<br>Benito Pérez Galdós: *Episodios Nacionales.*<br>Leon Tolstoi: *Ana Karenina.*<br>Pedro Antonio de Alarcón: *La Alpujarra.*<br>Jules Verne: *Munduari itzulia laurogei egunetan.*<br>W. Wundt: *Psikologia patologikoaren osagaiak.*<br>British Museumen katalogoak (50 liburuki). |
| Venezuelako Konstituzioak erabaki zuen komentuak desegitea; gainera, Aulki Santuarekin zituen harremanak hautsi zituen.<br>*Gravibus Ecclesia* agiria, 1875eko jubileua aldarrikatzeko (XII–24). | Édouard Manetekin batera, Edgar<br>Paris: Begitazioa: Egunsentia. Margolari inpresionisten lehenengo talde-erakusketa aurkeztu zen. Degas, Pierre Auguste Renoir, Camille Pissarro eta Édouard Manet azaldu ziren..<br>Modest Petrovitx Mussorgskik *Boris Godunov* opera estreinatu zuen.<br>Édouard Manet: *Lorategia neguan*<br>Paul Verlaine: *Erromantza berba barik.* | Gustave Flaubert: *La tentation de saint Antoine.*<br>Karl May: *Winnetou.*<br>Juan Valera: *Pepita Jiménez.*<br>C. Frank: *Rédemption.*<br>"École française d'Histoire et d'Archéologie de Rome" sortu zen.<br> |

| | Teresa | Historia: gizartea eta politika Europa eta munduan |
|---|---|---|
| 1875 | Bidaia trenez Mans-era beraren amarekin (III–29).<br>Gaixorik (X–8/22).<br>Ondokoa darabil buruan: "Ni lekaimea izango naiz" (XII–28).<br> | Alfontso XII.a Madrilen sartu zen (I–14).<br>Vatikanok Espainiako Berrezarkuntza onartu zuen (V–3).<br>Japoniak Errusiari Hegoaldeko Sakhalin utzi zion Kurilen uharteen truk (V–7).<br>Alemaniako Alderdi Sozialdemokrata berriro fundatu zen Gothako Kongresuan (V–22/27).<br>Erresuma Batuak Egiptori honek Suezko kanalean zituen akzioak erosi zizkion (XI–25).<br> |
| 1876 | Irakurtzen bizkor egiten du aurrera, Mariari esker (III–5).<br>"Oso argia da", amak dioenez (III–26).<br>Lehenengo argazkia. Zinkulinka dihardu.<br>Elgorriaren zantzua. Gaixorik lau egunetan (XI).<br>Zelia amak Notta sendagileari itaundu zion bularrean zuen tumoreagatik; berandu zen ebakuntza egiteko.<br>"Hiru urtez gero ekin nion Jainkoak eskatzen zidana ez ukatzen".<br> | Alfontsoren gudarostea Lizarran sartu zen Primo de Rivera jeneralaren agindupean; horrelaxe eman zitzaion amaiera hirugarren karlistadari. Erregegaiak Espainia bertan behera utzi zuen (II–28).<br>Errepublikazaleek gehiengoa lortu zuten Frantziako hauteskundeetan (III–5).<br>Indioen aliantza indartsua Estatu Batuetako gudarosteari jazarri zitzaion eta Little Bighorn-en menderatu zuen. Oso borrokaldi negargarria izan zen federalentzat. 800 gizon baino gehiago hil ziren, Custer jenerala beraien artean zelarik (VI–25).<br>Serbia eta Montenegrok guda aldarrikatu zioten Turkiari (VII–1).<br>Euskal foruak behin eta betiko abolitu ziren (VII-21).<br>Siderurgiaren garapena. Euskal burdinaren esportazioek milioi bat eta berrogei mila tonako kopurua lortu zuten.<br>Graham Bellek telefonoa asmatu zuen. |

| Eliza<br>Euskal Herri eta munduan | Artea | Kultura |
|---|---|---|
| Erlijiosoen kongregazioak Alemaniatik bota zituzten (V).<br>Paris, Lyon eta Angersko lizeo katolikoak fundatu ziren.<br>A. Jansenek *Verbum Dei* elkartea fundatu zuen. | George Bizetek *Carmen* opera, azkena, estreinatu zuen (III); eta Parisen hil zen (VI–3). | Santuolak Altamirako haitzuloak aurkitu zituen.<br>Pedro Antonio de Alarcón: *El escándalo.*<br>Juan Valera: *Las ilusiones de Fausto.*<br>Benito Pérez Galdós: *Doña Perfecta.*<br>A. Bollé: lurrun indarrezko lehenengo ibilgailua.<br>Alexander Flemingek kromosomak aurkitu zituen.<br>Alexei Nikolaievitx Tolstoi hil zen. |
|  | |  |
| Pio XI.aren bulda Gasteiz hiriari, bertoko apezpikuaren izendapena (Sebastian Herrero) jakinarazteko (XII–18).<br> | Pierre Auguste Renoir: *Le moulin de la Galette.*<br>Julian Gaiarrek Scalan A. Ponchieliren *La Gioconda* opera estreinatu zuen.<br>Brahmasek bere lehenengo sinfonia estreinatu zuen (Op. 68).<br>Edgar Degas: *Primaballerina* (Paris, Louvre).<br>Bayreuth-eko antzokia zabaldu zen aurrerengoz *Der Ring des Niebelungen* operarekin. | Francesc Pi i Margall: *Las nacionalidades.* Estatu federalen Espainia aldarrikatu zuen.<br>Stephane Mallarmé: *L'Aprés-midi d'un faune.*<br>*Révue historique*ren fundazioa.<br>Nikolaus Ottok aurreneko eztanda-motorea eraiki zuen.<br>Indalezio Bizkarrondo "Bilintx" hil zen<br> |

| | **Teresa** | ***Historia:*** **gizartea eta politika Europa eta munduan** |
|---|---|---|
| 1877 | Teresa hitzaldia bitartean aspertu egiten da (II–13).<br>Amak: "Gure umeak ez luke ezergatik ere gezurrik esango" (III–22).<br>Teresaren lehenengo "gutuna".<br>Martin andrearen, Maria, Paulina eta Leoniaren erromesaldia Lourdesera (VI–18/23).<br>Teresak Paulina (16 urtekoa) aukeratu zuen *bigarren amatzat* (VIII–29).<br>Lisieux-era doa bizi izatera (XI–15).<br>Buissonnets-en jarri ziren (XI–16).<br>Teresaren ama, Martin andrea, hil egin zen (VIII–28).<br> | Porfirio Díaz jenerala, boterea 1876an erdietsi zuena, Mexikoko lehendakari bihurtu zen.<br>Errusiar eta turkiarren arteko gudaz baliatuz, Errumaniak, laguntza errusiarrei eman zienak, independentzia adierazi zuen (V–24).<br>Maiatzaren 16ko krisia Frantzian: Mac-Mahonek estatu kolpea jo zuen.<br>Adolphe Thiers historialaria hil zen (IX–3). Frantziako lehendakaria izan zen 1871 eta 1873. urteen bitartean.<br>Ingalaterrako erregina Victoriak Indiako enperadore titulua jaso zuen.<br>Thomas Alva Edisonek fonografoa asmatu zuen.<br> |
| 1878 | Teresak lehenengoz ulertu zuen sermoi bat (IV).<br>Martin jaunaren, Maria eta Paulinaren bidaia Parisera, Erakusketa bisitatzeko.<br>Itsasoa lehenengoz ikusi zuen Trouvillen (VIII–8). | Alfontso XII.aren eta María de las Mercedesen arteko errege--ezkontza (I–23).<br>Victor Manuel I.a hil zen Erroman (I–9), beraren ordez seme Humberto I.a jarri zen.<br>Gilermo I.a enperadore alemaniarraren aurkako atentatua (V–11).<br>Errege Alfontso XII.aren aurkako atentatua Madrilen (IX–25).<br> |

| **Eliza**<br>**Euskal Herri eta munduan** | **Artea** | **Kultura** |
| --- | --- | --- |
| Toulouse eta Lilleko lizeo katolikoen fundazioa.<br>Herri-misioak Lekeition, Gasteizen… (V).<br> | Piotr Ilitx Txaikovskik Bolshoi antzokian *Beltxargen Aintzira* estreinatu zuen Bolshoi antzokian (III–4).<br> | Jose Manterola Beldarrain: *Cancionero Vasco* (1877–1880).<br>Francisco Navarro Villoslada: *Amaya*.<br>Émile Zola: *L'Assomoir*.<br>Gustave Flaubert: *Trois Contes*.<br>Camille Saint-Saëns: *Sanson et Dalila*.<br>Ernest Renan: *Les Évangiles*.<br>Henrik Ibsen: *Gizartearen euskarriak*.<br>José Echegaray: *O locura o santidad*.<br>Leon Tolstoik *Ana Kareninaren* azken bertsioa amaitu zuen.<br>1877–1878: J. Ficker: *Beiträge zur Urkundenlehre (Ekarpenak paleografiaren gainean)*.<br><br>Jacint Verdaguer: *Atlantida*. |
| Pio IX.a hil zen (II–7); beraren ordez, Leon XIII.a jarri zen (II–20).<br>Aita Santuaren *Inscrutabili* agiria, gizarte modernoaren gaitzen gainean, beraren karien inguruan eta beraien konponketei buruz (IV–21).<br>Jesusen Bihotz Sakratuaren apaizen fundazioa.<br>Aita Santuaren *Quod Apostolici* agiria, errakuntza modernoen gainean (XII–28). | Miguel Hilarión Eslava musikari eta apaiz nafarra hil zen (VII–23).<br>Giosue Carducci: *Kantua maitasunari* | Theodor Fontane: *Vor dem Sturm (Ekaitzaren aurrean)*.<br>Friedrich Nietzsche: *Menschiches Allzumenschiches (Gizatiarra, gizatiarregia)*..<br>Claude Bernard: *La Science expérimentale*.<br>Eça de Queirós: *O primo Basilio*.<br>*Revista Euskara* sortu zen.<br> |

| | Teresa | Historia: gizartea eta politika Europa eta munduan |
|---|---|---|
| 1879 | Urtean barrena, aurrerengoz bisitatuko du Karmelgo kapera.<br>Bere aita Martin jaunaren gaixotasunaren ikuspen profetikoa (uda edo 1880).<br>Lehenengo aitortza Saint-Pierre katedralean (1879aren amaieran edo 1880aren hasieran).<br> | Mac-Mahonek dimisioa aurkeztu zuen Frantzian (I–30); Jules Grévy jarri zen haren ordez.<br>Otto von Bismarck Erdiaren Alderdiarekin adiskidetu zen, *Kultur Borrokaren* porrota gertatu eta gero.<br>Pablo Iglesiasek Partido Socialista Obrero Español fundatu zuen (V–2).<br>Ozeano Bareko guda lehertu zen Txile eta Boliviaren artean (VI–5).<br>Jules Guesde eta Paul Lafarguek Frantziako Langileen Alderdia sortu zuten.<br>Alfontso XII.a bigarrenez ezkondu zen; honetan, Habsburgo-Lorenako Maria Kristinarekin. |
| 1880 | Zelinaren lehenengo jaunartzea, Teresaren bizitzako egunik politenetarikoa (V–13).<br>Ségur-ko kontesaren *La sœur de Gribouille* irakurri zuen (VIII–9).<br>Teresak bakarrik idatziriko lehenengo gutuna (XII–1). | Kuban joputzaren abolizioa aldarrikatu zen (II–13).<br>Frantziako gobernu errepublikarrak uztailaren 14a frantziarren jai nazionala izango zela aldarrikatu zuen (VII–14). *Marseilesa* ereserki frantziar bihurtu zen.<br>Euskal aldundiak Espainiako besteekin parekatu ziren (X–8). |

| **Eliza**<br>**Euskal Herri eta munduan** | **Artea** | **Kultura** |
|---|---|---|
| Belgika: lehenengo mailako irakaskuntza laikoa ezarri zen.<br>Aita Santuaren *Æterni Patris* agiria, filosofia kristauaren gainean (VIII–4). | Auguste Rodin: *Pentsalaria* (brontzez).<br> | Henrik Ibsen: *Nora*.<br><br>Georg Büchner: *Wöyzeck*.<br>Fedor Mikhailovitx Dostoievski: *Karamazov anaiak*.<br>Jacques Offenbach: *La fille du tambour-major*.<br>Pierre Loti: *Azyadé*. |
| Frantzian dekretu batzuk eman ziren erlijiosoen kongregazioen aurka (III).<br>Ipar Euskal Herrian, Baionako kaputxinoen, Donapaleuko frantziskotarren, Belokeko beneditarren... kanporaketa (XI).<br>Aita Santuaren *Arcanum divinæ sapientiæ* agiria (II–10).<br>Aita Santuaren *Sancta Dei civitas* agiria (XII–3), fedea zabaltzeko ekintzen gainean, bai eta haurtasun santuaren eta ekialdeko eskolen gainean ere.<br>Gilermo I.a aurrean delarik, Koloniako Katedrala amaitu zen, eraikitzen hasi eta 632 urte geroago (X–15). | Hippolyte Taine: *Artearen filosofia*.<br>Edgar Degas: *Dantzaria lore-sortarekin* (Paris, Louvre).<br> | *Euskal-Erria* aldizkaria sortu zen.<br>Lewis Wallace: *Ben-Hur*.<br>Émile Zola: *Nana*.<br>Guy de Maupassant: *Boule-de-Suif*.<br>Rosalía de Castro: *Follas novas*.<br>Marcelino Menéndez y Pelayo: *Historia de los heterodoxos españoles*<br><br>Giovanni Verga: *Cavalleria rusticana*. |

| | **Teresa** | **Historia: gizartea eta politika Europa eta munduan** |
|---|---|---|
| 1881 | Sarrera Lisieux-ko abadia beneditarrean, pentsio erdiz (X–3).<br><br>Argazkian Zelinarekin, salto-soka duelarik.<br> | Bardoko Itunbena (V–12). Frantziak bere babesgoa ezarri zion Tunisiari.<br>Ferry legea, Frantziako lehen mailako irakaskuntzari buruz (VI–16).<br>Louis Pasteurrek karbunkoaren aurkako txertoa asmatu zuen.<br>Panamako kanala egiten hasi ziren, kapital frantsesarekin.<br><br>Tsar Alexandro II.a hil zuten (III–13).<br> |
| 1882 | Paulinak Karmelera sartzea erabaki zuen(II–16).<br>Teresak ustekabean Paulinaren irteera jakin du. Berak bere burua Karmelera deituta dagoela uste du (Uda).<br>Paulina Karmelera sartu zen (ahizpa Aines Jesusena) (X–2). | Alemania, Austria eta Italiaren arteko aliantza (Frantziaren eraso bat gertatuz gero).<br>Gladstone eta Parnellen arteko konpromisoa; muturreko irlandarrek ez zuten onartu. Dublinen politikari britainiarrak hil zituzten (V–6).<br>Errusian judeguei bermeak murriztu zitzaizkien (V).<br>Ingalaterrak eskua sartu zuen Egipton eta atzeman egin zuten; ingelesen babes-herria izango da 1914tik aurrera.<br>Bilboko Labe Garaiak eta burdina eta altzairuaren lantegiak eratu ziren (XII–2).<br><br>Robert Kochek tuberkulosiaren baziloa aurkitu zuen.<br> |

| **Eliza<br>Euskal Herri eta munduan** | **Artea** | **Kultura** |
|---|---|---|
| Aita Santuaren *Diuturnum illud* agiria, herri boterearen jatorriaren gainean (VI–29).<br>Lillen, Nazioarteko lehenengo eukaristi kongresua egin zen.<br>Pio IX.aren gorpua Erroman donautsi zuten.<br>Friburgoko Batasunaren fundazioa (gizarte-katolikoak).<br><br>Sta. Teresa Avilakoaren heriotzaren 3. mendeurrena.<br><br>Aita Santuaren *Etsi nos* agiria, Italian Elizari sortarazitako egoera dela-eta (II–15).<br>Aita Santuaren *Cum multa sint* agiria, gogo eta ekintzarako batasunerako eta men egiteko deia Espainian (XII–8).<br>Frantzian erlijio irakaskuntza debekatu egin zen eskola ofizialetan.<br>Herri-misioak: Ataun, Bolibar, Oion, Deustua, Mungia, Ondarroa, Arrazola, Gurendes...<br>Sta. Teresa Avilakoaren heriotzaren 3. mendeurrena | <br><br>Robert Wagnerren azken opera azaldu zen: *Parsifal* (VII–26).<br>Familia Santua, Bartzelona. 1882an hasi zen eraikitzen; horren ardura Antoni Gaudík hartu zuen.<br> | Fedor Mikhailovitx Dostoievski hil zen San Petersburgen (XI–11).<br><br>Giovanni Verga: *La Malvoglia.*.<br>Paul Verlaine: *Sagesse.*<br>Anatole France: *Le Crime de Sylvestre Bonnard.*<br>C. Franck: *Rébecca.*<br>Jacques Offenbach: *Les contes d'Hoffmann.*<br>José Echegaray: *El gran galeote.*<br>Benito Pérez Galdós: *La desheredada.*<br>Juan Antonio Mogel-en "Peru Abarca" argitaratu zen Durangon.<br>Jose Maria Iparragirre hil zen.<br><br>Victor Hugo: *Les Quatre Vents de l'sprit*<br><br><br>Henry Becque: *Les Corbeaux.*<br>Pedro Antonio de Alarcón: *La pródiga.*<br>Conrad Ferdinand Meyer: *Gedichte.*<br>Pragan Unibertsitate Txekiarra fundatu zen (lehengo unibertsitatea bitan zatituko da: alemanez eta txekieraz).<br>Caron: *Monnais féodales françaises.* |

| | Teresa | Historia:<br>gizartea eta politika Europa eta munduan |
|---|---|---|
| 1883 | Bazkoa. Martin jauna Parisen dagoen artean, Teresaren buru-gaixotasuna hasi zen Guérindarren etxean (III–25).<br>Buissonnets-en atzera gaixotu zen (IV–7).<br>Martindarren bederatziurrena Notre-Dame-des-Victoiresen.<br>Oporrak Alençonen. Teresak otoitz dagi bere amaren hilobiaren gainean (VIII–2 / IX–30).<br>Eskolara itzultzen da, 3. mota, bigarren mailan (X–1).<br><br>Mendekostea. Bat-batean sendatu da, Andre Mariaren irribarrea dela bide (V–13). | Derrigorrezko aseguru eta osasun-zerbitzuak ezarri ziren langileentzat Alemanian (V–1).<br>Courbetek frantziar babesgoa ezarri zien Annam eta Tonkini (VIII–25).<br>Frantziarrek Madagaskar atzeman zuten.<br>Gottlieb Daimler-ek ezagutzera eman zuen gasolina-motorea.<br><br><br>Ottmar Mergenthaler-ek lehenengo linotipia egin zuen. |
| 1884 | Ahizpa Aines lagun duelarik, lehenengo jaunartzea gogotsu prestatzen du (II–IV).<br>Lehenengo jaunartzea abadian. Egun berean ahizpa Ainesen profesa Karmelen (V–8).<br>Hugonin gotzainak emandako sendotza (VI–26).<br>Teresak Saint-Ouengo abeletxea marraztu du (VIII–8).<br> | Frantziar legeria sindikatuen alde (III–21).<br>Frantzia eta Alemaniaren arteko elkarrizketak Ingalaterraren aurka (V–11).<br>Frantziako Konstituzioaren eraldaketak (V–21); monarkia berriro ezartzeko ahalbidea urrundu zen.<br>Dibortzio-legea Frantzian (VII–27).<br>Courbet almirante frantziarrak Fuzhouko arma-gordailu txinatarra bonbardatu zuen eta Formosaren iparraldean lehorreratu zen.<br>Frantziarrek gudu-itsasontziteria txinatarra suntsitu zuten Txinataren hegoaldean; aurrerantzean, Frantziaren babes-herria izango da.<br>Madrilgo "Cárcel Modelo" deritzona, Alfontso XII.ak estreinekoz zabaldu zuen.<br>Hiram Stevens Maxim-ek lehenengo ametralladora automatikoa prestatu zuen. |

| **Eliza**<br>**Euskal Herri eta munduan** | **Artea** | **Kultura** |
|---|---|---|
| Leon XIII.ak ikertzaileei Vatikanoko agiritegiak zabaldu zizkien.<br>Aita Santuaren brebea histori azterlanei buruz.<br>Aita Santuaren *Supremi Apostolatus* agiria, Mariaren errosarioaren gainean (IX–1).<br>Herri-misioak: Errigoiti, Arrona, Zalduendo, Araia, Donostia, Bilbo, Azkoitia, Portugalete, Olite, Barakaldo… | Richard Wagner Venezian hil zen (II–13).<br>Édouard Manet margolari inpresionista Parisen hil zen (IV–30).<br> | Armando Palacio Valdés: *Marta y María.*<br>Marcelino Menéndez y Pelayo: *Historia de las ideas estéticas en España.*<br>Emilia Pardo Bazán: *La cuestión palpitante.*<br>Guy de Maupassant: *Une vie.*<br>C. Franck: *Le Chausseur maudit.*<br>Friedrich Nietzsche: *Honela mintzatu zen Zaratustra.*<br>Karl Marx hil zen Londresen (III–14).<br>Robert Louis Stevenson: *Altxorraren uhartea.* |
| Aita Santuaren *Nobilissima Gallorum gens* agiria, Frantziako erlijio arazoaren gainean (II–8).<br>Aita Santuaren *Humanum Genus* agiria, frakmazoien sektaren inguruan (IV–20).<br>Herri-misioak: Bermeo, Gernika, Baliarrain, Bakio, Lekeitio, Narbaxa, Araia, Arrankudiaga, Urnieta. | Anton Bruckner-ek behin-betiko onespen eta arrakastak erdietsi zituen zazpigarren sinfonia estreinatu zuenean.<br> | Rosalía de Castro: *En las orillas del Sar.*<br>Leconte de Lisle: *Poèmes tragiques.*<br>José María de Pereda: *Sotileza.*<br>Lepoldo Alas, "Clarín": *La Regenta.*<br>Gabriele d'Annunzio: *Il libro delle vergini.*<br>Gregor Mendel, augustindar austriarra eta ikertzaile genetikoa zena hil zen Brno-n (I–6).<br>Jose Manterola hil zen. (*Cancionero Vasco*, 1877-1880). |

| | Teresa | Historia:<br>gizartea eta politika Europa eta munduan |
|---|---|---|
| 1885 | Inskripzioa Toursko Aurpegi Santuaren Anaidian (IV–26).<br>Teresak, oporrak Deauvillen ematen dabilelarik, *Le chalet des Roses* marraztu zuen (V–3/10).<br>Bigarren jaunartze solemnea (V–21).<br>Martin jauna Konstantinoplara irten zen (7 asteko bidaia) (VII–22).<br>Teresak otoitzaren apostolutzan eman zuen izena (X–15).<br> | Ekialdeko Afrikaren bazkun alemaniarra eratu zen (II–12). Alemaniak eskualde horren gainean babesgoa ezarri zuen (II–17).<br>Berlingo Akta (II–26): Kongoko Estatua sortu zen.<br>Alemania eta Britainia Handiak onartu zuten Jolo uharteak Espainiarenak zirela (III–7).<br>30.000 poloniar (Errusiako eta Austriako jatorrikoak) jaurti zituzten Polonia prusiarretik (III).<br>Anberesko Erakusketa Unibertsala inauguratu zen (IV–2).<br>Konstantinoplan, sute handi batek 300 eraikin baino gehiago suntsitu zituen (VI–7).<br>Karolinak kanoi-untzi alemaniar batek hartu zituen (VIII–13): gatazka diplomatikoa Espainiarekin. Espainiak Karolinak hartu zituen (VIII–21). Vatikano tartekari aritu zen Espainia eta Alemaniaren artean, Karolinak direla eta (X–22).<br>Bizkaiko Labe Garaietan altzairuzko lehenengo lingoteak egin ziren (X–8).<br>Madrilen Alfontso XII.a hil zen (XI–25) eta María Cristina erreginaordeak zin egin zion Konstituzioari.<br>Indioen Kongresu Nazionala sortuaz, Indioen Independentziarako mugimendua hasi zen.<br>Txinatarrek eta japoniarrek euren gudarosteak Koreatik atera zituzten. |
| 1886 | Maria, ahizpa nagusia, Lisieux-ko Karmelen sartu zen (X–15).<br>Buruko minak. Eskolara sarritan egiten du huts (II).<br>Martin jaunak behin eta betiko atera zuen Teresa abadiatik beraren osasuna zela-eta (II).<br>Eskola partikularrak andereño Papinauren etxean (III).<br>Gauerdiko mezatik bueltan, "konbertsio" grazia Buissonnets-en (XII–25).<br> | Dekretu bat eman zen, Espainian merkataritza, industria eta nabigazio etxeak sortzeko (IV–9).<br>Alemanian *Kultur Borroka* amaitu zen (IV–29).<br>Langile estatubatuarren borroka, alokairuak handitzeko (V–1).<br>Alfontso XIII.a jaio zen (V–17).<br>Frantziako tronurako erregegaien erbesteratzeari buruzko legea. Beraietarik batek ere ezin izango du aurrerantzean Frantziako lurraldean gelditu (VII).<br>Bizkaian meatze-bilgunea sortu zen (X–8).<br>Ipar Amerikako indioak erreserbetara bidali ziren.<br>Birmania India britainiarrari anexionatu zitzaion, probintzia mailarekin. Birmaniarrak Britania Handiari matxinatu zitzaizkion (1886–1887).<br>Deustuko Unibertsitatea fundatu zen.<br><br>Carl Benz-ek hiru gurpileko kotxea aurkeztu zuen, gasolina-motoreaz eragindako lehenengoa. |

| **Eliza**<br>**Euskal Herri eta munduan** | **Artea** | **Kultura** |
|---|---|---|
| Gasteizko Apezpikuaren Sinodorako dei egiteko ediktua (VII–2).<br>Arantzazuko Amaren koroatzea (IX–13).<br>Aita Santuaren *Inmortale Dei* agiria, Estatuen eraketa kristauaren gainean (XI–1).<br>Herri-misioak: Aia, Abadiño, Elgeta, Errespalditza, Zaldua, Okondo, Jatabe, Nabaridas, Albiztur, Bedia, Berriatua, Artea... | Anna Ravlova dantzari errusiarraren ekitaldiak zirrara handia sortarazi zuen Parisen.<br>Isaac Albénizek bere lehenengo lana jendaurrean azaldu zuen (I–20).<br> | Émile Zola: *Germinal.*<br>Anatole France: *Le Livre de mon ami.*<br>Theodor Fontane: *Unterm Birmbaum (Madariondoaren azpian).*<br>Rubén Darío: *Epístolas y poemas.*<br>Rosalía de Castro hil zen (VII–13).<br>Jose Frantzisko Aizkibel: *Diccionario Basco-Español.* |
| Martiriak Ugandan.<br>Charles Foucauld eta Paul Claudel fededun bihurtu ziren.<br>Aita Santuaren *Iampridem nobis* agiria, katolizismoak Alemanian bizi duen egoeraren gainean (I–6).<br>Aita Santuaren *Quod multum* agiria, Hungariako erlijio egoeraren inguruan (VIII–22).<br>Aita Santuaren *Pergrata nobis* agiria, Elizak Portugalen dituen beharrizanen gainean (IX–14). | Askatasunaren Estatua New Yorkeko portuan zabaldu zen aurrerengoz.<br>Bayreuth-en Franz Liszt musikagile hungariarra hil zen (VII–31).<br> | Arthur Rimbaud: *Les illuminations.*<br>Pierre Loti: *Pêcheurs d'Islande.*<br>Emilia Pardo Bazán: *Los pazos de Ulloa.*<br>Henry James: *Bostondarrak.*<br>Victor Hugo hil zen Parisen (V–22).<br>Jacint Verdaguer: *Canigó.*<br> |

| | Teresa | Historia: gizartea eta politika Europa eta munduan |
|---|---|---|
| 1887 | Henri Pranzinik bi emakume eta neska bat hil zituen Parisen (III–19/20ko gaua).<br>Mendekostea. Teresari bere aitak baimena eman zion Karmelera hamabost urterekin sartzeko (V–31).<br>Abadian Mariaren Alaba legez hartu zuten (V–31).<br>Pranzinik heriotza zigorra jaso zuen. Teresak otoitz egin zuen, eta bere burua sakrifikatu zuen hura Jaunaganatzeko (VII–13).<br>Teresak *Croix*en Pranziniren urkatzearen berri irakurri zuen; izan ere, Pranzinik gurutzea laztantzeko eskatu zuen (IX–1).<br>Leonia bisitatu zuen Caenen (X–6).<br>Karmelen sartzeko asmotan, Teresa eta beraren aitak Hugonin gotzaina bisitatu zuten Bayeux-en (XI–4).<br>Martin jaunak, Zelinak eta Teresak Erromara jo zuten: egun batzuetako bidaiaren hasiera (XI–4).<br>Leon XIII.aren audientzia. Teresa Aita Santuarekin mintzatu zen (XI–20).<br>Hugonin eta ama Maria Gonzagarenaren erantzuna: Teresa Karmelek har dezake (XII–28). | Bizkaiko siderurgikoek espainiar merkatua lortu nahi dute eta Untziteriaren Eraikuntza ezarriko duen legea beraien aldekoa izatea erdietsi zuten (I–12).<br>Tsar Alexandro III.aren aurka beste atentatu bat egin zuten. Huts egin zuen (III–1).<br>Espainia eta Italiaren arteko Itunbena (V).<br>Annam, Tonkin eta Kanbodiako babes-herri frantziarrek eta Kontxintxinako kolonia frantziarrak bat egin zuten, Indotxinako Batasuna eratzeko.<br>Ekialdeko aliantza hirukoitza Britainia Handiaren, Italiaren eta Austria-Hungariaren artean (XII).<br><br>Heinrich Hertzek uhin elektromagnetikoak aurkitu zituen. |
| 1888 | Andre Mari Martxoko jaia: Teresa Karmelen sartu zen (IV–9).<br>Zelinak aitari jakinarazi zion karmeldar izateko zuen asmoa (VI–15).<br>Martin jaunaren osasuna zela-eta Teresak habitua hartzeko eguna atzeratu egin zuen (XI).<br>Martin jaunak 10.000 libera eskaini zituen Saint-Pierre katedraleko aldare berrirako (XII?).<br><br>Teresaren argazkia, mototsa duelarik (*apirilaren hasiera*). | Gilermo II.a, Alemaniako Enperadore (VI–15).<br>Unión General de Trabajadoresen fundazioa (VIII–13/14).<br>Espainia Sueztik zeharko nabigazio askearen hitzarmenari atxiki zitzaion (X–29).<br>Fridtjof Nansenek Groenlandiako izotz-bankuak zeharkatu zituen.<br>Isaac Peralek lehenengo erakusketa egin zuen *Peral* urpekuntziarekin (IX–8).<br>"Astilleros del Nervión" fundatu zen Sestaon.<br>Pasteur Institutua zabaldu zen estreinekoz.<br><br>Bartzelonako Erakusketa Unibertsala (V–20). |

| **Eliza Euskal Herri eta munduan** | **Artea** | **Kultura** |
|---|---|---|
| Lehenengo sindikatu kristauen fundazioa.<br>Aita Santuaren *Officio sanctissimo* agiria, Bavariako gotzainei, arrazionalismo eta materialismoaren gainean, eta gazte katolikoen hezkuntzaren inguruan (XII–22).<br>Herri-misioak: Bastida, Ondategi, Salinillas, Portugalete, Garai, Busturia, Urrestilla, Gasteiz, Forua, Bergonda, Algorta. | Burdinazko eraikuntza handia: Eiffel dorrea (1887–1889).<br><br>Benito Pérez Galdós: *Fortunata y Jacinta* (1887–1888). | Pierre Loti: *Madame Chrysanthème*.<br>Emilia Pardo Bazán: *La madre naturaleza*<br>Conrad Ferdinand Meyer: *Die Versuchung des Pescara (Pescararen tentazioa)*.<br>Ernest Renan: *Histoire du peuple d'Israel* (1887–1893).<br>Ramón de Campoamor: *Humoradas*.<br>Ludwik Lejzer Zamenhof-ek *Nazioarteko hizkuntza* izeneko liburuxka argitaratu zuen (esperantoa).<br>Theodor Fontane: *Irrungen, Wirrungen (Errakuntzak eta nahasteak)*.<br>*Eskualduna* aldizkaria sortu zen.<br> |
| Don Bosco hil zen (I–31).<br>Lehenengo sindikatu kristauak Belgikan.<br>Aita Santuaren *In plurimis* agiria, Brasilgo joputza abolitzearen gainean, gizakumeen arteko berdintasuna eskatzeko (V–5).<br>Aita Santuaren *Libertas præstantissimum* agiria, giza askatasunaren gainean.<br>Herri-misioak: Bermeo… | Vincent Van Goghek Parisko aldia amaitu zuen.<br><br> | Maurice Barrès: *Sous l'œil des barbares*.<br>Guy de Maupassant: *Pierre et Jean*.<br>Theodor Storm: *Der Schimmelreiter (Zaldi zuriaren zalduna)*.<br>Rubén Darío: *Azul*.<br>August Strindberg: *Julia andereñoa*.<br> |

| | Teresa | Historia:<br>gizartea eta politika Europa eta munduan |
|---|---|---|
| 1889 | Teresak habitua hartu zuen elurtean, Martin jauna aurrean dagoelarik (I–10).<br>Martin jauna Caengo Bon Saveurko ospitalean sartu zuten (hor hiru urte iraun zuen (II–19).<br>Lisieux-ko auzitegiak administratzaile bat izendatu zuen Martin jaunaren ondasunetarako: Teresarentzako frogetarik zailenetarikoa (VI–18).<br>Martin jaunaren erlojuak karmeldarren koruan hartu zuen leku (XII–31). | Austriako Langileen Alderdi Sozialdemokrata sortu zen (I–1).<br>Frantziarren babesgoa Boli Kostaren gainean (I–10).<br>Rodolfok, Frantzisko Jose enperadorearen seme bakarrak, bere buruaz beste egin zuen bere maitale Maria Vetserarekin batera (I–30).<br>Espainian Posta kidegoa sortu zen (III–12).<br>Konferentzia Panamerikatarra Washingtonen (X–2), *kontinenteko batasuna eratzeko.*<br>Panamako kanala eraikitzen ziharduen bazkun frantziarrak porrota jo zuen.<br>Brasilgo Estatu Batuen Errepublika Federala ezarri zen (XI–15).<br>Parisko Nazioarteko Feria (Eiffel dorrea).<br>  |
| 1890 | Urtean zehar Teresak Joan Gurutzekoa irakurri zuen eta Isaiasen testuak ediren zituen "Zerbitzari sufritzailea"ren gainean.<br>Guérindarrak erromes doaz, Leonia eta Zelinarekin Tours eta Lourdesera… (V–6/17).<br>Teresaren profesa (IX–8).<br><br>[illegible] ma profession et [illegible] Chasteté, Pauvreté et Obéissance [illegible] Dieu Notre Seigneur [illegible] Marie [illegible] | Berlingo Nazioarteko Konferentzia lan arazoen gainean (III–15/29). Otto von Bismarck haren aurka azaldu zen.<br>Alemaniako sozialdemokratek irabazi zuten hauteskundeetan (II–20).<br>Otto von Bismarckek boterea laga zuen (III–15).<br>Maiatzaren Lehenaren nazioarteko aurrerengo ospakizun handia (V–1).<br>Greba orokorra Bizkaian (V–12).<br>Helgoland-Zanzibarko Itunbena Alemania eta Britainia Handiaren artean, frantziar kolonien gainean (VII–1).<br>Ingalaterra eta Frantziaren arteko Akordioa Afrikako eraginaldeen inguruan (VIII–5).<br>Richard Hertwig-ek nukleo zelularra eta kromosomak aurkitu zituen.<br>Londresen, munduko lurrazpiko lehenengo trenbide elektrikoa jarri zen abian.<br>Indioak hil zituzten Wounded Knee-n (XII–29).<br>Sota y Aznar untzi-enpresaren fundazioa.<br>Banca di Romaren porrota. |

| **Eliza<br>Euskal Herri eta munduan** | **Artea** | **Kultura** |
|---|---|---|
| Bihotz Santuaren jaia ezarri zen.<br>Erlijio askatasuna Japonian.<br>Unibertsitate katolikoen fundazioa Washingtonen (EEBB) eta Friburgon (Suitza).<br>Aita Santuaren *Quanquam pluries* agiria, Jose Deunaren eta Andre dena Mariaren babesaren inguruan (VIII–15). | Gustav Mahlerrek Budapesten bere lehenengo sinfonia aurkeztu zuen. Arrakasta handia lortu zuen (XI–20).<br>Vincent Van Gogh: *Izar-gaua.* | Henri Bergson: *Essai sur les donnés immédiates de la conscience.*<br>Paul Bourget: *Le disciple.*<br>Detlev von Liliencron: *Gedichte (Olerkiak).*<br>Armando Palacio Valdés: *La hermana San Sulpicio.*<br>Emilia Pardo Bazán: *Insolación.*<br>H. Bresslau: *Handbuch der Urkundenlehre für Deutschland und Italien (Paleografiaren eskuliburua Alemania eta Italiarako).*<br>M. Prou: *Manuel de paléographie latine et française.*<br>L. des Mas-Latrie: *Trésor de chronologie, d'histoire et géographie.* |
|  |  | Gerhart Hauptmann: *Vor Sonnenaufgang (Egunsentiaren aurrean).*  |
| Charles Aleman Lavigerie kardenalak Frantziar Errepublikako katolikoen *ralliementa* iragarri zuen. | Edgar Degas: *Andrazkoa komunean.*<br>Julian Gaiarre hil zen 59 urte zituela (I–2).<br>Aleksandr Borodinek *Igor printzea* opera estreinatu zuen (XI–4). | Paul Valéry: *Narcisse.*<br>Paul Claudel: *Tête d'or.*<br>Émile Zola: *La Bête humaine.*<br>Knut Hamsum: *Gosea.*<br> |
| Albert Lagrangek Jerusalemgo Bibli Azterlanen Eskola fundatu zuen.<br>Aita Santuaren *Sapienter christianæ* agiria, kristauek gizartean dituzten eginbehar behinenen gainean (I–10). | Giovanni Segantini: *Goldeak Engadin-en.* | |
|  | | |

| | Teresa | Historia:<br>gizartea eta politika Europa eta munduan |
|---|---|---|
| 1891 | Sakristiako lanetan dihardu.<br>Joan Gurutzekoaren heriotzaren hirugarren mendeurrena. Hugonin gotzaina klausuran sartu zen eta oso aitabera azaltzen da "bere alabatxo" Teresarekin. Txartel bat atera zen: "Joan Gurutzekoaren testamentua" (XI–24).<br>Ama Genofa, Lisieux-ko Karmelgo fundatzailea, hil zen (XII–5).<br>Asai edo influenzatearen hasiera (XII–28).<br><br>Révérony *apaiza*, bikario nagusia zena, hil zen (X–10). | Protokoloa sinatu zen, Espainia, Italia eta Austria-Hungariaren arteko 1887ko ezkutuko akordioa berriztatzeko (V–4).<br>Errusia eta Frantzia elkarrengana hurreratzeak apurtu egin zuen Otto von Bismarckek asmatu zuen oreka europarra.<br>Jean Martin Charcot doktoreak hipnosi sistema iraulgarria erabili zuen bere gaixoak sendatzeko.<br>Bernan, Bakearen Nazioarteko Bulegoa fundatu zen.<br>Otto Lilienthalek planeatuz egindako lehenengo hegaldiak egin zituen.<br>Transiberiar trenbidea (*1891–1894*). |
| 1892 | Teresaren urteurrena; ahizpa San Joseren heriotza (I–2). Ahizpa Febroniaren (I–4) eta ahizpa Madalenaren (I–7) heriotza Lisieuxko Karmelen.<br>Martin jaunak Karmelera egindako azken ikustaldia; beraren berba bakarrak ondokoak izan ziren: "Zerura arte" (V–12).<br> | "Bases per a la constitució regional catalana" onetsi ziren (III–25).<br>Sabino Arana Goirik *Bizkaya por su independencia* argitaratu zuen.<br>Frantzia eta Errusiaren arteko konbentzio militarra (VIII–17).<br>Panamako kanalaren finantzen eskandalua Frantzian: Ferdinand Lessepsek dirua eman zien diputatuei, senadoreei eta ministroei. Kanala eraikitzeari utzi zitzaion. |

| **Eliza**<br>**Euskal Herri eta munduan** | **Artea** | **Kultura** |
|---|---|---|
| Aita santu Leon XIII.ak katoliko frantziarrei gomendatu zien Errepublikari laguntzeko.<br>Aita Santuaren *Rerum novarum* agiria, langileen izaeraren gainean (V–16).<br>Aita Santuaren *Octobri mensi* agiria, errosario eta otoitz mariatarraren gainean (IX–22). | Georges Seurat margolaria hil zen (III–19).<br> | Frank Wedekind: *Früngs Erwachen (Udaberriaren Itzartzea).*<br>Gerhart Hauptmann: *Einsame Menschen (Gizon bakartiak).*<br>Paul Verlaine: *Bonheur.*<br>Maurice Barrès: *Le Jardin de Bérénice.*<br>Benito Pérez Galdós:*Ángel Guerra.*<br>Armando Palacio Valdés: *La espuma.*.<br>L. Coloma: *Pequeñeces.*<br>Arthur Rimbaud olerkari frantziarra hil zen (XI–10).<br>Javako pitekantropoa aurkitu zen.<br>Oscar Wilde: *Dorian Grayren erretratua*<br>Luis Luciano Bonaparte printzea hil zen.<br>Juan Duvoisin hil zen.<br>Juan Batista Elissamburu hil zen.<br><br>Hugo von Hofmannsthal: *Gestern (Atzo).* |
| Zirkularra, gotzain amerikarren naziotasunaren inguruan.<br>Aita Santuaren *Au milieu des solicitudes* agiria, Elizaren eta Estatuaren arteko harremanen inguruan Frantziari dagokionez (II–16).<br>Aita Santuaren *Quarto abeunte sæculo* agiria, Amerikaren aurkikundearen laugarren mendeurrena zela-eta (VII–26). | Paul Gauguin: *Izpiritua jagole.*<br><br> | Hugo von Hofmannsthal: *Die Weber.*<br>Paul Verlaine: *Liturgies intimes.*<br>Arthur Conan Doyle: *Sherlock Holmesen oroitzapenak.*<br>Walt Whitman olerkari estatubatuarra hil zen (III–26).<br>M. Prou: *Monnaies mérovingiennes.* |

| | Teresa | Historia:<br>gizartea eta politika Europa eta munduan |
|---|---|---|
| 1893 | Teresaren lehenengo olerkia, Teresa San Agustin ahizparentzat: *Jainko ihintza* (II–2).<br>Beraren ahizpa Leonia Caengo Bisitazioan sartu zen (hirugarren ahalegina erlijio-bizimoduan) (VI–24).<br>Aines Jesusena aukeratu zuten lekaimeburu (II–20).<br> | Panama auzia amaitu zen: Gustave Eiffel eta Ferdinand Lesseps kondenatu zituzten.<br>M. F. Sadi Carnot, Frantziako lehendakaria, Lyonen hil zuten (VI–24).<br>Sabino Aranak Bilboko *Euzkeldun Batzokiya* fundatu zuen; bera izango zen uri mailan abertzaleen ekintza politiko eta kulturala zuzendu zuten euskaltegietarik lehenengoa (VII–15).<br>*Foruen aldeko manifestazioa Donostian (VIII).*<br>Gorabehera militarrak Melillan (IX–29): Marokoko guda.<br>Errusiarren guda-untziteria Tolonen (X–13/29): frantziar eta errusiarren arteko aliantzaren ataria (XII–27).<br>Rudolf Dieselek bere izeneko motorea asmatu zuen.<br>Sabino Aranaren *Bizkaitarra* egunkaria argitaratzen hasi zen (VI–8).<br> |
| 1894 | <br>Bere lehenengo antzerkia idatzi zuen: *Joana Arkekoaren misioa* (I).<br>Leon XIII.ak Joana Arkekoa "dohatsu" izendatu zuen (I–27).<br>*Martin jaunaren paralisia; untzioa eman zioten* (V–27).<br>Martin jauna La Mussen hil zen (VII–29).<br>Zelina Lisieux-ko Karmelen sartu zen; bera Teresaren ardurapean jarriko dute (IX–14).<br>Alençon-dik Lisieux-era ekarri zituzten Martin andrearen eta beraren lau seme-alaben gorpuak (X–11).<br>Ama Ainesek Teresari agindu zion haurtzaroko oroitzapenak idazteko (XII). | Trenbiderik luzeena, Transiberiar trenbidea, eraikitzen hasi ziren. 7.000 km ditu eta Siberia osoa zeharkatzen du.<br>*Marokoko hitzarmena (III–15): Melillako gudaren azkena.*<br>Txina eta Japoniaren arteko guda (1894–1895); Japoniak Port Arthur atzeman zuen. Japoniak mendebaldeko herrialdeekin eginda zeuden itunben desorekatuen deustapena negoziatu zuen (VII–16).<br>Guda zibila Perun (1894–1895).<br>Dreyfuss arazoa ireki zen (X–15).<br>Tsar Alexandro III.a hil zen; beraren ondorengoa seme Nikolas II.a izango da.<br>Paristik Rouenera bitartean automobilen lehenengo lasterketa egin zen (VII–18/22).<br> |

| **Eliza**<br>**Euskal Herri eta munduan** | **Artea** | **Kultura** |
|---|---|---|
| Aita Santuaren *Constanti Hungarorum* agiria, Elizak bere baitan, Hungarian, dituen arazoen inguruan (IX–2).<br>Aita Santuaren *Providentissimus Deus* agiria, Bibliaren azterketen gainean (XI–18).<br>Herri-misioak: Elorrio, Ea, Fruiz.<br>Edvard Munch: *Garrasia.* | Parisen Charles Gounod musikagilea hil zen (X–18).<br>Piotr Ilitx Txaikovski errusiar musikagilea San Petersburgon hil zen (XI–9).<br>Antonin Dvorakek New Yorken bere bederatzigarren sinfonia, *Mundu Berriarena*, estreinatu zuen (XII–16).<br> | Madrilen José Zorrilla olerkari eta antzerkigilea hil zen (I–13).<br>Paul Verlaine: *Élegies.*<br>José María de Heredia: *Les Trophées.*<br>Émile Zola: *Au bonheur des dames.*<br>Paul Bourget: *Cosmopolis.*<br>Schnitzler: *Anatol.*<br>Hugo von Hofmannsthal: *Der Tor und der Tod (Inozoa eta heriotza).*<br>Stephane Mallarmé: *Vers et prose.*<br> |
| Aita Santuaren *Caritatis providentiæque* agiria, Poloniako Elizaren gainean (III–19).<br>Aita Santuaren *Præclara gratulationis* agiria, Elizaren irakaskuntza, politika eta gizartearen alorrean (VI–20).<br>Aita Santuaren *Orientalium dignitas* agiria, Ekialdekoen diziplinari eutsi eta bera zaintzearen gainean (XI–30).<br>Aita Saixek demokrazia kristaua fundatu zuen. | Santiago Rusiñol artistak omenaldi bat egin zion Grecori Bartzelonan.<br>Joaquín Sorollak *Arrantzatik bueltan* mihisea margotu zuen.<br> | Émile Durkheim: *Metodo Soziologikoaren Arauak.*<br>Lanson: *Frantziar literaturaren historia.*<br>Anatole France: *Le Lys rouge.*<br>Claude Debussy: *Prelude à l'après midi d'un faune.*<br>A Giry: *Manuel de diplomatique.*<br>Rudyard Kipling: *Oihaneko liburua.* |

| | Teresa | Historia:<br>gizartea eta politika Europa eta munduan |
|---|---|---|
| 1895 | *A eskuizkribua urte honetan idatzi zuen.*<br>Bat-bateko eskaintza Maitasun Errukitsuari, meza bitartean (VI–9).<br>"Nire Ama maiteari haurtzaroko Aingeru Eder izan nuenari" olerkia idatzi zuen, ama Ainesen 34 urteak direla eta (IX–7).<br>Maria Guérin, beraren lehengusina, Lisieux-ko Karmelera sartu zen (VIII–15).<br> | *Baire-n piztu zen Kubako Independentziarako gudua (II-23).*<br>Kubako guduak egundoko inflazioari eragin zion Espainian.<br>Shimonosekiko bakeak amaiera eman zion Txina eta Japoniaren arteko gudari. Txinak Japoniari Taiwan laga zion.<br>Isturitzeko haitzulo prehistorikoa idoro zen.<br>"Marítima Unión" fundatu zen.<br>Bizkai Batzarra eratu zen.<br>Sabino Aranak EAJ fundatu zuen honako atzalburu honekin: "Jaungoikoa eta Lagi-Zarra".<br> |
| 1896 | Teresak A eskuizkribua ama Ainesi eman zion (I–20).<br>Ama Maria Gonzagarena aukeratu zuten lekaimeburu (III–21).<br>Ostiral Santua, 2tik 3rako gaua: gaueko *lehenengo odol-okada.*<br>Bazkoa. Fedearen proba, bera hil arte iraungo duena (IV–5).<br>Aita Roulland-ek lehenengo meza eman zuen Karmelen; mintzategian hitz egiten du Teresarekin (VII–3).<br>B eskuizkribuaren lehenengo zatia idazten du (IX–13). | Nikolas II.a koroatu zuten Moskun; hori zela eta, ezbehar lazgarria jazo zen (3.000 bat lagun hil ziren).<br>Grezia eta Turkiaren arteko guda piztu zen Kreta lortzearren; herrialde boteretsuen presioei esker amaitu zen guda, eta Kreta burujabe egin zen, Turkiaren babespean.<br>Estatu Batuek Kuba erosi nahi izan zioten Espainiari.<br>Italiaren porrota Abisinian (III-1).<br>Errusiak baimena lortu zuen Transiberiar trenbidea luzatu eta Mantxurian zehar pasatzeko (III-1).<br>Lurrikara Japonian, 27.000 lagun inguru hil ziren.<br>T. Herzl-ek Estatu judegua aldarrikatu zuen.<br>Aro Garaikideko lehenengo Joko Olinpikoak (IV-6/15): Greziak 311 kirolari jaso zituen.<br> |

| Eliza<br>Euskal Herri eta munduan | Artea | Kultura |
|---|---|---|
| Parman "Parmako Atzerriko Misioak edo San Frantzizko Xabierren Erakundea" sortu zen.<br>Grave-n (Holanda) "Familia Santuaren Misiolariak" kongregazioa jaio zen.<br>Aita Santuaren *Adiutricem populi* agiria, errosarioaren gainean.<br>Gipuzkoako 250 apaizek Aita Santuaren aldeko gogo-jardunen ondoren egin zuten protesta, garai hartako bidegabekeriagatik (Italiak Aita Santuari lurraldeak kendu zizkion…) (IX–24). | Bartzelonan aurrerengoz jo zen Isaac Albénizen *Henry Clifford* opera (V–8).<br>Zinemagintzako lehenengo ikuskizunak.<br>"La clownesse Cha-U-Ka-O", H. Loulouse-Lautrec-ena.<br> | C. Egerber Borchgrevink izan zen Antartikara heldu zen lehenengo gizona.<br>Sigmund Freud: *Histeriari buruzko ikerketak.*<br>Louis Pasteur hil zen.<br>Alfred Nobelek irasi zuen Nobel saria.<br>Alexandre Dumas hil zen, *Kamelien Anderea*ren idazlea.<br>Michel Elissamburu Errekart euskal idazlea hil zen (1826-1895).<br>A. Choisy: *Histoire de l'architecture.*<br>C. Jullian: *Histoire de Bordeaux.*<br><br>Wilhelm Conrad Röntgen-ek X izpiak eriden zituen. |
| "Apostolicae curae" bulda: Leon XIII.ak ez zuen onartu anglikar apaizgintzek baliozkotasunik zutenik.<br>*Satis cognitum* entziklika, Elizaren batasunaren gainean (VI–29).<br>Blondel: *Gutuna pentsaera garaikidearen eskakizunei buruz.*<br>Xabierko Frantzisko santuaren eliza berriko lehenengo harria ezarri zen (V–25). | Giacomo Puccinik Turinen *La Bohème* opera aurkeztu zuen.<br>Anton Bruckner musikagilea hil zen (X-11).<br>Edvard Munch: *Bekaizgoa.*<br> | Renouvier: *Philosophie analytique de l'histoire.*<br>Friedrich Engels hil zen (VIII-5).<br>H. Bequerel-ek erradioaktibitatea eriden zuen.<br>Henri Bergson: *Gaia eta oroimena.*<br>M. Prou: *Catalogue des monnaies carolingiennes.*<br>A. Maire: *Manuel practique du Bibliothécaire.*<br>Henryk Sienkiewicz: *Quo vadis?*<br>Paul Verlaine olerkari frantziarra hil zen.<br>Otto Lilienthal istripuz hil zen.<br>Alfred Jarry: *Ubu erregea.*<br>*Euskalduna* aldizkaria jaio zen.<br>Arturo Kanpion *Euskariana* argitaratzen hasi zen. |

| | Teresa | Historia:<br>gizartea eta politika Europa eta munduan |
|---|---|---|
| 1897 | Ama Ainesi lehenengoz aipatu zion laster hilko zela (I–9).<br>8. antzerkia, azkena, idatzi zuen: *Stanilas Kostka saindua* ((II–8).<br>*Azken elkarrizketak* lanaren hasiera (IV–6).<br>Ama Maria Gonzagarenak eskatu zion autobiografia idazten jarraitzeko (C eskuizkribua) (VI–3).<br>Bellière apaizgaiari agur-oharra idatzi zion: "Ez naiz hilko, bizitzan sartuko naiz" (VI–9).<br>Arnasestuak; Teresak hilaginean dagoela ematen du (VII–7).<br>Azken eguneko berbak: "Ez dut damu neure burua maitasunari ematea. Ez horixe!".<br>Arratsaldeko zortziak hogei gutxiago inguruan, hil zen Teresa (IX–30).<br>Teresaren azken argazkia, hilda dagoelarik (X–4).<br>*Lisieux-ko hilerrian lurperatu zuten (X–4).* | Cánovas presidentea hil zuten Gipuzkoako Santa Agedako bainuetxean (VIII-8).<br>Greziak Kreta erantsi edo anexionatu zuen (III–18).<br>Israeldarren nazioarteko lehenengo kongresua Basilean: sionismoaren fundazioa.<br>Bilboko Industri Ingeniarien Eskola.<br>Orfeoi Donostiarra fundatu zen.<br> |
| 1898 | Beraren autobiografia argitaratu zen (2.000 ale). | |
| 1899 | *Bigarren argitalpena: 4.000 ale.* Beste hizkuntza batzuetara itzultzen da: ingelesera 1901n; gaztelaniara 1911; zingalierara 1913; alemanera, 1914. | |
| 1923 | Dohatsu izendatu zuen Pio XI.ak. Berak bere aitasantualdiko izar bihurtu zuen (IV–29). | |
| 1925 | Santu izendatu zuen Pio XI.ak; homilian 60.000 lagun ditu. Arratsaldean, 500.000 erromes daude Pedro deunaren plazan (V–17). | |
| 1927 | Pio XI.ak Teresa santua misiolari guztien eta unibertso osoan dauden misio guztien zaindari izendatu zuen, Xabierko Frantziskoren parean (XII–14). | |
| 1944 | Pio XII.ak Teresa Frantziaren bigarren zaindari izendatu zuen, Joana Arkekoaren moduan. | |
| 1991 | Beraren autobiografia euskaraz agertu zen, Santi Onaindiaren itzulpenean: *Arima baten istoria.* | |
| 1996 | Teresaren *Idazlan guztiak* agertu dira euskaraz liburu baten. | |

| Eliza<br>Euskal Herri eta munduan | Artea | Kultura |
|---|---|---|
| *Divinum illud munus* entziklika (V–9), Izpiritu Santuaren ekintzaren inguruan.<br>Auguste Echecopar Be'tharran-en hil zen (1830–1897). | Donostiako Artzain Ona, Manuel Echave arkitekto donostiarrarena (1888–1897).<br><br>Vienan hil zen Johannes Brahms musikagilea (IV–3).<br>Eltxeko Anderea idoro zuten.<br> | Ángel Ganivet: *Idearium español.*<br>Guglielmo Marconik irratizko lehenengo emanaldia egin zuen.<br>Émile Durkheim-ek *Revue de sociologie* fundatu zuen.<br>Miguel Unamuno: *Paz en la guerra.*<br>*Euskalzale* aldizkariaren lehenengo alea argitaratu zen.<br><br>EUSKALZALE |
| | | |